

## “LEIOAKO GOSARIRIK ONENA 2018” LEHIAKETAREN OINARRIAK

Leioako Udalak, Behargintzarekin elkarlanean eta LEIOA ZAPORETAN ekimenaren barruan, I. “LEIOAKO GOSARIRIK ONENA 2018” Lehiaketa deitu du. LEIOAKO ostalaritza-establezimenduetan jardunean dauden profesionalei zuzentzen zaie, eta helburu du sektore horretan jarduera eta eragin ekonomikoa sortzea, bai eta sektore horren irudia udalerrri barruan eta bertatik kanpo sustatzea, hedatzea, dinamizatzea eta bultzatzea ere.

Lehiaketak “Leioako gosaririk onena” sarituko du. Gosaria kafez eta patata-tortillaz osatuta egongo da, eta esperientzia asebetegarria eman beharko die bezeroei.

### Parte-hartzaileak:

Lehiaketan parte har dezakete gosariak eskaini ohi dituzten ostalaritza-establezimendu guztiak, edozein sailkapen dutela ere (tabernak, kafetegiak, garagardotegiak, ardotegiak, jatetxeak...), adierazitako epean izena ematen badute, betiere.

Gutxienez 10 parte-hartzailek eman behar du izena, eta kopuru hori lortuko ez balitz, antolakuntzak lehiaketa bertan behera uzteko aukera aztertuko luke.

### Izena ematea:

Establezimendu interesdunek izena emateko fitxa bete behar dute. Inskripzioak ez dauka kosturik, eta modu hauetako batean egin daiteke:

- Behargintza Leioaren webgunean gaitutako inprimakiaren bidez ([www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)).
- Behargintza Leioaren instalazioetan, helbide honetan: Mendibil kalea, 3. zk.

Establezimenduek 2018ko maiatzaren 30a baino lehen egin behar dute inskripzioa, egun horretan ixten baita izena emateko epea.



## **Baldintzak:**

Ostalaritza-establezimenduek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Establezimenduak estilo tradizionalako edo estilo libreko patata-tortilla eskain dezake.
- Mota berdineko tortillarekin parte hartu behar dute beti, hau da, tortillak osagai berdinak eduki behar ditu beti.
- Lehiaketak iraun bitartean, tortilla erakusgai eta publikoaren eskura egon behar da gosaltzeko orduetan zehar.
- Tortilla behar bezala adierazita egon behar da, antolakuntzak establezimenduari horretarako emango dion kartel ofizialarekin.
- Establezimenduak ikusteko moduko leku batean jarriko du lehiaketaren kartela, publikoak jakin dezan ekimenean parte hartzen duela.
- Kafe-barietate eta -modalitate guztiekin parte har daiteke lehiaketan.

## **Lehiaketaren datak:**

Lehiaketan izena emateko epea 2018ko maiatzaren 16tik 30era doa.

Lehiaketak 2018ko ekainaren 1etik 17ra arte iraungo du. Hala ere, epealdi hori parte-hartzaile kopuruaren arabera luza liteke, epaile profesionalak establezimendu guztietara joateko aukera dutela bermatzeko. Kasu horretan, establezimenduei jakinaraziko zaie.

## **Epaimahaia eta erabakia:**

Lehiaketak epaile profesionalak izango ditu, gastronomiaren eremuko profesional aitortuak izango direnak, eta, halaber, epaimahai herrikoia ere egongo da, establezimenduetako bezeroek osatutakoa.




Epaimahaiek parte hartzen duten establezimenduetako gosariak dastatu eta baloratuko dituzte, lehiaketak iraun bitartean.

Epaileek lehiaketara aurkezten diren kafea eta tortilla probatuko dituzte, eta irabazleak aukeratu, gosariaren aurkezpena, testura, zaporea eta bezeroen esperientzia kontuan hartuta.

Epaile profesionalak lehiaketan parte hartzen duten establezimendu guztietako gosariak dastatuko dituzte. Ez dute aurretiaz jakinaraziko bertaratuko direnik, eta erakundeari emango dizkiote puntuazioak, aipatutako balorazio-irizpidearen arabera ezarriko direnak.

Epaile horiek inpartzialtasunez, objektibotasunez eta parte-hartzaile guztien artean erabateko berdintasuna bermatuz kalifikatuko dituzte gosariak.

Epaimahai herrikoiak, bestalde, sare sozialetan emango du ezagutzera haren botoa, Facebook bidez. Botoa banakakoa izango da, eta bozkatzeko, establezimenduak lehiaketarako argitaratu duen irudian "atsegin dut" ikonoari sakatu behar zaio. "Atsegin dut"  kopurua baino ez da zenbatuko, eta dira bestelako iritzi eta balorazioak kontuan hartuko.

Behin bozketen emaitzak lortuta, "Leioako gosaririk onena 2018" aukeratuko da, ezarritako kategoria bakoitzean.

## Sariak:

Bi irabazle egongo dira:

- ❖ **SARI PROFESIONALA:** epaile profesionalak "Leioako gosaririk onena 2018" gisa aukeratzen dutenari emango zaio. Lokal irabazleak saria lortu izana egiaztatzen duen plaka oroigarria jasoko du, eta 600 €-tan balioetsitako publizitate-kanpaina egingo zaio eskualdeko komunikabideetan.
- ❖ **SARI HERRIKOIA:** epaimahai herrikoiak "Leioako gosaririk onena 2018" gisa aukeratzen duenari emango zaio. Lokal irabazleak saria lortu izana egiaztatzen duen plaka oroigarria jasoko du, eta 300 €-tan balioetsitako publizitate-kanpaina egingo zaio eskualdeko komunikabideetan.
- ❖ Ezin da sarien balioa eskudiruz trukatu.



Orokorrean, antolakuntza saiatu da ekitaldia komunikabide desberdinetan hedatzen, "Leioako gosaririk onena 2018" lehiaketan parte hartzen duten establezimendu guztiak ezagutarazteko.

### **Arauk onartzea eta arau-haustekak:**

Lehiaketan izena emateak oinarriak, antolakuntzaren ebazpenak eta epaimahaien erabakia erabat onartzea dakar.

Oinarrietan jasotako kontzepturen bat betetzen ez duen establezimendua lehiaketatik kanporatuta geratuko da.

Parte hartzen duen establezimenduren batek ez badu lehiaketarako tortilla behar bezala erakusgai jartzen edo bezeroei adierazten badie ez duela tortillarik izango, automatikoki kanporatuta geratuko da, horretarako arrazoi justifikatuak izan eta antolakuntzari aurretiaz jakinarazi ezean.

Parte-hartzaile guztiak erakundeari lagatzen dizkiete haien eta lehiaketarako gosariaren irudia hedatzeko eskubideak, irudi horiek sareetan eta webgunean argitaratzeko.

Antolakuntzak ebatziko du oinarri hauetan jasotzen ez den gorabehera oro, inpartzialtasuna izanik irizpidetzat eta lehiaketa ahalik eta hobekien garatzen dela bermatuz.

